Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
*Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 3223 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA | *3223 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 47 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA | *47 EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER* |
| EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARIA | *DIRECTORA DE EMAKUNDE-INSTITUTO VASCO DE LA MUJER* |

## HELBURUA

**1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA**

**2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA**

**3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN**

**4. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BOTERE PUBLIKOEKIN JARDUERAK EGITEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA, POLITIKA PUBLIKOETAN BERDINTASUNA LANTZEKO**

## *OBJETIVO*

***1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD***

***2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI***

***3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI***

***4. REALIZAR ACTUACIONES Y COLABORAR CON LOS PODERES PÚBLICOS VASCOS PARA EL DESARROLLO DEL OBJETIVO DE IGUALDAD EN LAS POLÍTICAS PÚBLICAS***

## BETETZE MAILA

**1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18ko 4/2005 LEGEAREN APLIKAZIOA SUSTATZEA, ETA PLANGINTZA, EGITUREN SENDOTZEA ETA BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZAREN HOBEKUNTZA BULTZATZEA**

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak ohiko bilkura egin du martxoaren 6an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea aldatzeko lege-aurreproiektuaren zirriborroa aurkezteko, eta araudiak eskatutako txostenak eta dokumentuak onartzeko (zifren txostena, botere publikoen jarduera-memoria eta Emakunderen memoria). Bilkura horretan, halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzeko lege-aurreproiektuaren zirriborroa aurkeztu zen.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea bigarren aldiz aldatzeko lege-aurreproiektuari dagokionez, 2019an, partehartze-saio bat baino gehiago egin da herritarrentzat eta gizarte-eragileentzat, eta aurkezpen-ekitaldi batzuk ere bai, berdintasunaren eta indarkeriaren arloan erakundeen arteko koordinazioaz arduratzen diren organoekin. Egin beharreko kontsulta-faseak ere egin dira, galdea eginez gizarteari (kontsulta publikoa), Jaurlaritzako sailei eta beste administrazio publiko batzuei, eta bildu beharreko txosten

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. PROMOVER LA APLICACIÓN DE LA LEY 4/2005 DE 18 DE FEBRERO PARA LA IGUALDAD DE MUJERES Y HOMBRES E IMPULSAR LA PLANIFICACIÓN, EL FORTALECIMIENTO DE LAS ESTRUCTURAS Y LA MEJORA DE LA GOBERNANZA PARA LA IGUALDAD***

*El Consejo de Dirección de Emakunde ha realizado una sesión ordinaria el 6 de marzo para la presentación del borrador del anteproyecto de Ley de modificación de la Ley 4/2005 para la Igualdad de mujeres y hombres, así como, para la aprobación de los informes y documentos requeridos por la normativa (Informe Cifras, Memoria de actuación de los poderes públicos y Memoria de Emakunde). En dicha sesión se presentó así mismo el borrador del anteproyecto de Ley de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de mujeres y hombres.*

*En relación al anteproyecto de Ley de segunda modificación de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres, a lo largo de 2019 se han realizado varias sesiones abiertas a la participación de la ciudadanía y agentes sociales y presentaciones a los órganos de coordinación interinstitucional en materia de igualdad y violencia. Se han desarrollado las fases de consulta pública y consulta a los Departamentos del Gobierno y otras administraciones públicas y se han recabado los informes y dictámenes preceptivos de las*

eta irizpenak ere bildu dira organo aholku-emaile eskudunen aldetik, KEB eta EABJ barne. Guztira, 400 ekarpen baino gehiago eta 15en bat txosten heldu zaizkigu eta baloratu ditugu.

Era berean, txosten hauek bidali dira Eusko Legebiltzarrera: Emakunderen 2018ko Jarduera Memoria; Berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioaren defentsaren inguruko Jarduera Memoria 2018; publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordearen Begira 2018 jarduera-memoria; "EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2018"; Botere publikoek EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana exekutatzeko zer egin duten azaltzeko memoria 2017.

Emakundeko zuzendariak guztira 5 agerraldi egin ditu, batzorde hauetan: Ogasuna eta Aurrekontuak; Erakundeak; Segurtasuna eta Gobernantza Publikoa; Lana eta Justizia; eta Enplegua, Gizarte Politikak eta Gazteria.

**-Administrazio publikoetan berdintasun-politikak diseinatzen eta abian jartzen laguntzen duten azterlanak eta baliabideak sortu eta zabaltzeari dagokionez:**

EAEko pentsioen genero-arrakalari buruzko txosten bat egin dugu.

Emakumeek herrietako jaietan parte hartzeko estrategiei buruzko ikerketa egin du.

Beste ikerketa bat, Emakundek EAE eraldatzeko egiten duen ekarpen sozialari buruz

Artikulu-bilduma bat osatzen ari gara, zainketak genero-ikuspuntutik hartuta.

Azterlan bat aurkeztu dugu, generoak Euskadiko lan-merkatuan eragiten duen arrakalaz.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana argitaratu eta banatu dugu.

**-Jaurlaritzak sustatzen duen araudiaren genero-inpaktuari dagokionez:**

2019an, guztira, 69 espediente kudeatu ditugu. 33 txosten egin ditugu 4/2005 Legeko 19. eta 20. artikuluetan xedatutakoa egoki aplikatzen dela egiaztatzeko, 33 ofizio salbuetsita eta bi errekerimendu irizpen zain geratu dira 2020rako.

Generoaren araberako eraginaren ebaluazioari buruzko espediente guztiak kontsultatzeko aplikazio informatikoa elikatzen jarraitu dugu.

Prozesu parte-hartzaile bat garatu da, berariazko gida bat egiteko, denok jakin dezagun nola egin behar diren lurralde- eta hirigintza-planen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioak.

**-Autonomia-, foru- eta toki-administrazioen berdintasun-plangintzaren eremuan:**

Emakunderen XI. Legegintzaldiko (2018-2021) Berdintasun Plana garatuz, 2019ko plangintza hedatu da. Plan horretan 155 jarduera jasotzen dira (16, lehentasunezkoak), eta,

*entidades y órganos consultivos competentes, incluidos los de la OCE y COJUAE. En total, se han recibido y valorado más de 400 aportaciones y alrededor de 15 informes.*

*Se han remitido los siguientes informes al Parlamento Vasco: Memoria actividad Emakunde 2018, Memoria Actividad área de defensa del principio de igualdad y no discriminación 2018, Memoria Actividad de la Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación Begira 2018, Informe “Cifras sobre la situación de mujeres y hombres en la CAE, 2018, Memoria de actuación de los poderes públicos en ejecución del VI Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la CAE, 2017.*

*La Directora de Emakunde ha realizado un total de 5 comparecencias ante las comisiones de Hacienda y Presupuestos; Instituciones; Seguridad y Gobernanza Pública; Trabajo y Justicia; y Empleo, Políticas Sociales y Juventud.*

***-En cuanto a la creación y difusión de estudios y recursos que apoyen el diseño y puesta en marcha de políticas de igualdad en las administraciones públicas:***

*Se ha elaborado un informe sobre la brecha de género en las pensiones de la CAE.*

*Se ha realizado una investigación sobre estrategias para la participación de las mujeres en las fiestas locales.*

*Se ha finalizado la investigación sobre la aportación social de Emakunde a la transformación vasca.*

*Se está elaborando una colección de artículos sobre los cuidados desde el punto de vista del género.*

*Se ha presentado un estudio sobre las brechas de género en el mercado laboral de Euskadi.*

*Se ha publicado y difundido el VII plan para la igualdad de mujeres y hombres en la CAE.*

***-En relación con la evaluación del impacto de género de la normativa que promueve el Gobierno:***

*El total de expedientes gestionados en 2019 ha sido de 69. Se han emitido 33 informes para verificar la correcta aplicación de lo dispuesto en los artículos 19 y 20 de la Ley 4/2005, 33 oficios exentos, y 3 han quedado pendientes para ser informados en 2020.*

*Se ha seguido alimentando la aplicación informática que permite consultar todos los expedientes relativos a la evaluación de impacto en función del género.*

*Se ha desarrollado un proceso participativo para la elaboración de una guía específicamente enfocada a realizar evaluaciones previas de impacto de género de planes territoriales y urbanísticos.*

***-En el ámbito de la planificación para la igualdad por parte de las administraciones autonómica, forales y locales:***

*Se ha desplegado, en desarrollo del Plan para la Igualdad de Emakunde correspondiente a la XI Legislatura (2018-2021), la planificación correspondiente a 2019 que*

ebaluazioak erakutsi duenez, betetze-maila handia izan dute.

*contempla 155 actuaciones (16 de ellas prioritarias) y que han tenido un alto grado de cumplimiento, según demuestra su evaluación.*

Eusko Jaurlaritzako sailen 8 berdintasun-plan aztertu ditugu txosten eta guzti. Planok XI. Legealdiaren barruan egin dituzte.

*Se han informado 8 planes de igualdad para la XI legislatura de los Departamentos del Gobierno Vasco.*

Toki-erakundeen 11 plani buruzko txostenak egin ditugu.

*Se han informado 11 planes de entidades locales.*

EAEko udalerrientzako, koadrilentzako eta mankomunitateentzako diru-laguntzen deialdia kudeatu dugu, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak eta plan sektorialak, baita indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta-protokoloak ere, sortu eta ebaluatzeko behar den laguntza teknikoa ahalbidetzeko. Urteko deialdia da; 52 eskaera jaso eta 37 laguntza eman ditugu.

*Se ha gestionado la convocatoria para la concesión de subvenciones a municipios, cuadrillas y mancomunidades de la CAE destinadas a proporcionar la asistencia técnica para la realización de diagnósticos y/o elaboración y evaluación de planes para la igualdad de mujeres y hombres, incluidos protocolos de atención a mujeres víctimas de violencia. Se trata de una convocatoria anual en la que se han recibido 52 solicitudes y se han concedido 37 ayudas.*

Zenbait udali aholkuak eman dizkiegu berdintasun-planak egiteko prozesuan. Halaber, materialak egin eta berrikusteko garaian ere aholkularitza eman dugu.

*Se ha asesorado a varios ayuntamientos en el proceso para la elaboración de sus planes para la igualdad. Asimismo se ha asesorado en la elaboración y revisión de materiales.*

Emakundek aholkuak eta txostenak ematen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren arloan jarduteko protokoloei buruz, protokolo horiek sustatzen dituzten toki-administrazioek erreferentzia-esparru bat izan dezaten, betiere toki-administrazioek hala eskatzen badute. Aurten, Gorbeialdeko eta Arabako Lautadako kuadrillei eman diegu aholkularitza. Era berean, poliziarekiko koordinazioa hobetzeko esku-hartzeak egin dira Errenterian eta Oiartzunen.

*Emakunde asesora e informa los protocolos de actuación en materia de violencia contra las mujeres, para que las administraciones locales que los impulsan tengan un marco de referencia, siempre y cuando las administraciones locales así lo demanden. Este año se ha asesorado a las Cuadrillas de Gorbeialdea y de Llanada Alavesa. Asimismo, también se han llevado a cabo intervenciones para mejorar la coordinación con el ámbito policial tanto en Errenteria como en Oiartzun.*

Berdingune ataria eguneratu egin dugu. Bertan daude bilduta gure erkidegoan arlo honetan dauzkagun baliabide, programa eta zerbitzu publiko guztiak.

*Se ha actualizado el portal Berdingune, que aglutina los diferentes recursos, programas y servicios de carácter público existentes en esta materia en nuestra comunidad.*

Emakunderen webguneko "Berdintasuna kontratu eta diru-laguntzetan" atala berrantolatu eta berritu egin dugu.

*Se ha reorganizado y renovado la sección de la web de Emakunde sobre "Igualdad en contratos y subvenciones".*

Emakumeen eta gizonen berdintasun-prestakuntzari dagokionez, beste erakunde batzuekin lankidetzan aritu gara emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza-jardueretan.

*Respecto a la labor de formación en materia de igualdad de mujeres y hombres, se ha colaborado con otras entidades en actividades de formación en relación con la igualdad de mujeres y hombres.*

EHUrekin lankidetzan, "ALDAKETARAKO ALIANTZA ESTRATEGIKOAK" ikastaroa antolatu dugu. "AHALDUNTZEA, ALDAKETARI EKITEKO TRESNA", EHUren 2019ko udako ikastaroetan, Donostian (Miramar jauregia)

*En colaboración con la UPV/EHU se ha organizado el Curso "ALIANZAS ESTRATÉGICAS PARA EL CAMBIO EL EMPODERAMIENTO COMO HERRAMIENTA DE ACCIÓN TRANSFORMADORA" en los cursos de verano de la UPV/EHU 2019 en Donostia-San Sebastián (Palacio Miramar).*

EHUren «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko online masterrarekin» elkarlanean aritu gara irakaskuntza lagunduz (2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteak), diru-laguntza izenduna emanez.

*Se ha colaborado con el "Máster on line en Igualdad de Mujeres y Hombres" (curso 2018-2019 y 2019-2020) de la UPV/EHU, a través del apoyo en la docencia y la concesión de una subvención nominativa.*

EHUren Berdintasunerako Zuzendaritzarekiko elkarlan-hitzarmenaren itzalpean, 4 online ikastaro egin ditugu emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruz; eta, beste 4, gizonei, berdintasunari eta maskulinotasunei buruz.

*En el marco del convenio en colaboración con la Dirección para la Igualdad de la UPV/EHU, se han realizado 4 cursos online sobre igualdad de mujeres y hombres, y otros 4 sobre hombres, igualdad y masculinidades.*

HAEErekin lankidetzan aritu gara berdintasunari buruzko zeharkako prestakuntzaren diseinuan, eta «Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko oinarrizko ikastaroaren» irakaskuntzan; azken horrek hiru edizio izan

*Se ha colaborado con el IVAP en el diseño de la formación transversal sobre igualdad, así como en la docencia del "Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres", del que se han hecho tres ediciones.*

ditu.

Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko masterra (Deustuko Unibertsitatea) egiteko 14 laguntza eman ditugu.

*Se han concedido 14 ayudas para la realización del Máster en intervención en violencia contra las mujeres de la Universidad de Deusto.*

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Klinika Juridikoan laguntzen jarraitzen dugu, esku-hartzeen eta kasu errealen bidez.

*Se sigue colaborando en la Clínica Jurídica de la Facultad de Derecho de la UPV/EHU mediante intervenciones y la aportación de casos reales.*

**-Generoari eta berdintasun-politikei buruzko ikerketa eta azterketa sustatu ditugu, honela:**

***-Se ha promovido la investigación y el estudio sobre género y políticas de igualdad a través de:***

Hiru beka eman ditu generoarekin eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako zenbait alderdi eta faktore aztertzen dituzten ikerketak egiteko.

*La concesión de tres becas de investigación que abordan el análisis de diversos aspectos y factores relativos al género y la igualdad de mujeres y hombres.*

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ikerlanen VII. Lehiaketarako deialdia.

*La convocatoria del VII certamen de trabajos de investigación en materia de igualdad de mujeres y hombres.*

**-Eusko Jaurlaritzako sail eta organismo, Foru Aldundi, udal eta beste euskal erakunde publiko batzuekin egindako jarduerei dagokienez, lankidetza-saio hauek nabarmendu behar ditugu.**

***-En cuanto a las actuaciones realizadas con los distintos departamentos y organismos del Gobierno Vasco, Diputaciones Forales y los Ayuntamientos y otras instituciones públicas vascas, cabe destacar las siguientes colaboraciones:***

Lehendakaritzarekin batera, Bake eta Bizikidetza Planaren Kontseiluan parte hartu dugu.

*Con Lehendakaritza se ha participado en el Consejo del Plan de Paz y Convivencia.*

Kanpo Harremanetarako Idazkaritzarekin, Basque Country Estrategiaren garapenean jardun dugu lankidetzan.

*Con la Secretaría de Acción Exterior se ha colaborado para el desarrollo de la Estrategia Basque Country.*

Lankidetzaren Euskal Agentziarekin elkarlanean aritu gara Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan.

*Con la Agencia Vasca de Cooperación, se ha participado en el Consejo Vasco de Cooperación al Desarrollo.*

Lan eta Justizia Sailarekin batera, justiziako plan estrategikoaren esparruan eratutako interes-taldeetan parte hartu da, 2020-2025 plangintza estrategikoa egiteko.

*Con el Departamento de Trabajo y Justicia se ha participado en los grupos de interés constituidos en el marco del plan estratégico de justicia con el objetivo de elaborar la planificación estratégica 2020-2025.*

Osasun Sailarekin batera, osasunaren batzorde teknikoan parte hartu dugu, urteko txostena garatzeko taxutu diren politika guztietan.

*Con el Departamento de Salud se ha participado en el comité técnico de salud en todas las políticas para el desarrollo del informe anual.*

Hezkuntza Sailarekin batera, hezkuntza-sisteman hezkidetza sustatzeko eta genero-indarkeriari aurrea hartzeko II. Gida Plana egiten parte hartu dugu, eta, era berean, koordinazio egonkor bat ezarri da, planaren ezarpenean aholkuak eta laguntza emateko.

*Con el Departamento de Educación se ha participado en la elaboración del II Plan Director para la coeducación y la prevención de la violencia de género en el sistema educativo y, de igual modo, se ha establecido una coordinación estable para asesorar y acompañar en la implementación del mismo.*

Enplegu eta Gizarte politiketako Sailarekin lankidetzan aritu gara IV. Gazte Planaren esparruko ekintzak prestatzen eta planifikatzen, eta parte hartu dugu orobat Adinekoen Kontseilu Sektorialean, Familiaren Euskal Kontseiluan, Immigrazio Foroan eta Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseiluan.

*Con el Departamento de Empleo y Políticas Sociales se ha colaborado en la elaboración y planificación de acciones en el marco del IV Gazte Plana y se participa en el Consejo Sectorial de Personas Mayores, en el Consejo Vasco de Familia, en el Foro de Inmigración y en el Consejo para la Promoción Integral y Participación Social del Pueblo Gitano.*

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin lankidetzan aritu gara genero-ikuspegia txerta dezan bere funtzionamenduan, horretarako diru-laguntza izendun bat eskainita, baita aldizkako koordinazioa eta aholkularitza ere.

*Con el Consejo Vasco de la Juventud, se ha colaborado para integrar la perspectiva de género en su funcionamiento a través de la dotación de una subvención nominativa para tal fin y a través de coordinación y asesoramientos puntuales.*

Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kirol Zuzendaritzarekin lankidetzan, kirol-arloko profesionalentzako jardunaldi bat antolatzen parte hartu dugu, berdintasunak kirolaren kudeaketan eta praktikan

*En colaboración con la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura y Política Lingüística se ha participado en la organización de una jornada dirigida a profesionales del ámbito deportivo para reflexionar sobre*

dituen onurei buruz hausnartzeko.

Lehenagotik bada lankidetza-hitzarmen bat sinaturik Emakunderen eta Eusko Jaurlaritzako Lan-ikuskaritza eta Gizarte Segurantzako zuzendariordetzaren artean (Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean dago, Lan eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan), etengabe zaintzeko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermaturik dagoela euskal autonomia-erkidegoko enpresetan; bada, hitzarmen horren jarraipena egiteko batzordeak bilera bat egin du.

Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundearen eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen hitzarmenari lotuta, hainbat lan- eta koordinazio-bilera eta informazio-trukaketa egin dira.

EUSKALITekiko hitzarmenaren esparruan, zenbait jarduketa garatu ditugu hura betetzeko; besteak beste, kudeaketan berdintasun-jardunbideak identifikatzea eta horien aukeraketa bat aurkeztea elkarrekin antolatutako jardunaldi batean, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuko Aste Europarrean.

Q-epea sarea: bi lantaldetan parte hartu dugu, eta kudeaketa aurreratuaren hainbat arlo jorratu.

Ogasun eta Finantza Sailarekin elkarlanean aritu gara EAEko aurrekontuetan genero-ikuspegia sartzeko prozesuaren abiarazpenean.

EUSTATekin elkarlanean jarraitu dugu, genero-berdintasunaren Europako indizea kalkulatzeko eta Euskal Estatistika Kontseiluan parte hartzeko: 2018-2022 aldirako Euskal Estatistika Plana egiten parte hartu dugu.

Osakidetzarekin lankidetzan aritu gara, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzetan dauzkaten langileei berdintasunari buruzko oinarrizko prestakuntza emateko.

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzarekin elkarlanean aritu gara (Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila), Emakume Nekazarien Estatutuaren Jarraipen Batzordean parte hartuz.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin lankidetzan, Eusko Jaurlaritzaren "aurrerabide" eredua hedatzeko lanen barruan (kudeaketa Publiko Aurreratuko Eredua), Emakunderen plan estrategikoa egiteko lan-prozesu bat egin da.

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiari helduta, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin lankidetzan, sortu eta burutu ditugu Emakunderi dagokion plan estrategikoa eta haren kudeaketa-plana. Egindako jardueren artean, honako hauek nabarmendu behar dira: euskara Batzordeak planaren komunikazioan eta jarraipenean egindako lana; euskararen ahozko erabilera neurtzea; Emakunderen hizkuntza-irizpideak eguneratzea eta eremuka lan egitea haiek ezagutu eta aplikatzeko; dibulgazio-buletin bat sortzea; langileak sentsibilizatzeko eta prestatzeko ekintzak, etab. Era berean, beste gauza

*los diversos beneficios que aporta incorporar la igualdad en la gestión y en la práctica deportiva.*

*En el marco del Convenio de colaboración entre Emakunde-Instituto Vasco de la mujer y la subdirección de la Inspección de Trabajo y Seguridad Social de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco para la vigilancia permanente en las empresas de la comunidad autónoma de Euskadi de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres, ha habido una reunión de la comisión de seguimiento del mismo.*

*En el marco del Convenio entre Osalan-Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales y Emakunde-Instituto Vasco de la mujer, se han desarrollado varías reuniones de trabajo, coordinación y actuaciones de intercambio de información.*

*En el marco del convenio con EUSKALIT, se han desarrollado distintas actuaciones conjuntas para darle cumplimiento, entre ellas, la identificación de prácticas de igualdad en la gestión y la presentación de una selección de las mismas en una jornada conjunta organizada en la Semana Europea de la Gestión Avanzada de Euskalit.*

*En el marco de la red Q-epea, se ha participado en dos equipos de trabajo relacionados con diferentes áreas de la gestión avanzada.*

*Con el Departamento de Hacienda y Finanzas se ha colaborado para la puesta de marcha de un proceso para integración de la perspectiva de género en los presupuestos de la CAE.*

*Con Eustat se ha continuado con la colaboración para el cálculo del índice europeo de igualdad de género y la participación en el Consejo Vasco de Estadística, se ha participado en la elaboración del Plan Vasco de Estadística 2018-2022.*

*Se ha colaborado con Osakidetza para impartir formación básica en igualdad al personal de sus delegaciones territoriales de Bizkaia y Gipuzkoa.*

*Se ha colaborado con la Dirección de Agricultura y Ganadería del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras del Gobierno Vasco a través de la participación en la Comisión de Seguimiento del Estatuto de las Mujeres Agricultoras.*

*Se ha realizado, en colaboración con el Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno y en el marco del despliegue del Modelo de Gestión Pública Avanzada del Gobierno Vasco, "Aurrerabide", un plan de trabajo para elaborar el plan estratégico de Emakunde.*

*En colaboración con el Departamento Cultura y Política Lingüística, en el marco del Plan General de Normalización del Uso de euskera, se han elaborado y ejecutado el plan estratégico y plan de gestión correspondiente a Emakunde. Entre las actuaciones desarrolladas cabe destacar: la labor realizada por el Euskara Batzordea en la comunicación y seguimiento del Plan, la realización de una medición del uso oral del euskara, la actualización de los criterios lingüísticos propios de Emakunde y el trabajo por áreas para su conocimiento y aplicación, la creación de un boletín divulgativo, acciones de sensibilización y formación*

eta ekintza batzuetan ere parte hartu dugu: Euskal administrazio publikoetako berdintasun-teknikarien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektuan; Euskaraldian; Genero ikuspegia hizkuntza politikan IVAP-en ikastaroko prestakuntza ematen; Soziolinguistika Klusterrak Aldahitz metodologiari buruz antolatutako jardunaldian; berdintasunari eta feminismoari buruzko euskarazko hiztegi terminologikoa lantzen; eta euskara eta generoari buruzko Batzordean.

*para el personal, etc. Asimismo, se ha participado en el proyecto del fomento del uso del euskara entre el personal técnico de igualdad de las administraciones públicas vascas, en Euskaraldia, en la impartición de la formación del curso del IVAP Genero ikuspegia hizkuntza politikan, en la jornada organizada por el Clúster de sociolingüística sobre la metodología Aldahitz, en la elaboración del diccionario terminológico en euskera sobre igualdad y feminismo, y en la Comisión sobre euskera y género.*

**-Dokumentazio zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogazioa eta indexatzea, aldizkarien harpidetzak kontrolatu eta horietatik artikuluak hustutzea, etab. Horiez gain, zentroak eskaintzen dituen zerbitzuetako erabiltzaileen eskaerei erantzun die.**

***-El Centro de Documentación ha realizado las labores habituales de gestión y mantenimiento (adquisición de fondos, catalogación e indización, control de las suscripciones a revistas y vaciado de artículos de las mismas, etc.) y las derivadas de la atención a las personas usuarias de los diferentes servicios que el Centro ofrece.***

350 dokumentu baino gehiago eskuratu eta/edo katalogatu dira; batez ere idatzizko dokumentuak, baina baita ikus-entzunezkoak ere.

*Se han adquirido y/o catalogado más de 350 documentos, sobre todo documentos escritos pero también audiovisuales.*

Hainbat bider eskatu izan zaigu informazioa eta bibliografia-aholkularitza. Eskatu zaigu orobat ea egingo ditugun zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak “nahierara”, edo ea hautatuko ditugun gai jakin batzuei buruzko prentsa-albisteak. Bada, gutxi gorabehera horrelako 900 eskaerari erantzun zaie, posta elektronikoz zein telefonoz, aretoko kontsultez gain, eta 250 liburu eta bideo mailegatu dira.

*En respuesta a las demandas de información, asesoramiento bibliográfico, elaboración de listados bibliográficos y videográficos “a la carta” y selección de noticias de prensa sobre temas solicitados se han atendido 900 peticiones aproximadamente, realizadas tanto por correo electrónico como por teléfono, además de las consultas en sala y se han realizado 250 préstamos de libros y videos.*

Aurten ere jarraitu dugu jendearen eskura uzten, internet bidez, gure dokumentu-funtsa. Zerbitzu horri bere horretan eutsi diogu (25.700 erregistro ABSYS basean).

*Se ha mantenido el servicio de puesta a disposición del público, a través de Internet, de un número importante de obras de su fondo documental (25.700 registros en la base de ABSYS).*

Dokumentazio Zentroak, Espainiako Emakumeen Liburutegien eta Dokumentazio Zentroen Sareko kidea den aldetik, sare horretako bestelako zentroen bitartez eginiko eskaerei ere erantzun die, eta sare horretako kideek urtero egiten dituzten topaketetan parte hartu du.

*El Centro de Documentación, como centro integrante de la Red de Bibliotecas y Centros de Documentación de mujeres del estado español, ha atendido a las diversas peticiones realizadas a través de los otros centros integrantes de dicha Red, y ha asistido a los Encuentros que se celebran anualmente entre las integrantes de dicha Red.*

Maite Albiz Emakumeen Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean aritu gara jakintza zabaltzeko diru-laguntza izendun baten bitartez.

*Se ha colaborado con el Centro de Documentación de Mujeres Maite Albiz a través de una subvención nominativa para la difusión de conocimiento.*

## 2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOAK EBALUATZEA

## *2. EVALUAR LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

«EAEko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 2019» urteko txostena egin dugu.

*Se ha realizado el Informe anual Cifras sobre la situación de las mujeres y los hombres en la CAE, 2019.*

Berdintasunerako VII. Plana gauzatzeko botere publikoek egindako jardueraren jarraipenari eta ebaluazioari dagokionez, informazioa bildu da, eta 2018ko memoria egin da, bai eta Eusko Jaurlaritzako sailen jarduerari buruzko jarraipen-dokumentua ere.

*Con relación al seguimiento y evaluación de la actuación de los poderes públicos en ejecución del VII Plan para la Igualdad se ha procedido a la recogida de información y se ha elaborado la memoria correspondiente a 2018 así como el documento de seguimiento relativo a la actuación de los departamentos del Gobierno Vasco.*

Etxean tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko Erakundeen Arteko II. Akordioaren jarraipen-txostena eta betetze mailari buruzko ebaluazio-txostena egin ditugu.

*Se ha realizado el informe de seguimiento y evaluación anual del nivel de cumplimiento de los contenidos del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual.*

Emakumeen aurkako indarkeriaren ezagutzan aurrera egiten jarraitu dugu, eta EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren dimentsioari buruzko txostenak argitaratu ditugu. Alde batetik, "EAEko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datu estatistikoen azterketa eta interpretazioa. Datu estatistikoak 2018 ", izeneko txostena egin eta argitara eman dugu, batez ere Segurtasun Sailak emandako datuak erabiliz. Era berean, biktima izan diren eta biziraun duten emakumeen arretan, jarduera-eremuen araberako datu-bilketa homogeneizatzeko lanean jarraitzen dugu. Datu-bilketa horren ondorioz, "EAEko emakumeen aurkako indarkeriaren aurreko erantzuna. 2018ko datuak" azterketa-txostena egin dugu.

*Se ha continuado avanzando en el conocimiento de la violencia contra las mujeres, publicándose informes sobre la dimensión de la violencia contra las mujeres en la CAPV. Por una parte, se ha realizado y publicado el informe "Análisis e interpretación de datos estadísticos sobre violencia contra las mujeres en la CAPV. Datos estadísticos 2018", sobre datos aportados fundamentalmente por el Departamento de Seguridad. Así mismo, se continúa trabajando en la homogeneización de la recogida de datos por ámbitos de actuación en la atención a mujeres víctimas y supervivientes. Fruto de esta recogida de datos se ha realizado el informe de análisis "Respuesta ante la violencia contra las mujeres en la CAPV. Datos 2018".*

Baliabideen Mapa Emakunderen webgunean jarri dugu. Bertan ditugu, geografian kokaturik, emakumeen aurkako indarkeria jasan duten emakumeei laguntza emateko zerbitzu guztiak, azkar eta erraz aurkitzeko moduan. Informazioa hainbat modutan bila daiteke: eremuaren arabera, udalerriaren arabera, mapan bertan "globoak" erabiliz eta "ikusi kontsultatutako baliabide guztiak" goitibeherako botoiaren bidez. Mapa bizia izan nahi du, eta, beraz, ezer aldatu beharra baldin badago eskainitako informazioa eguneratuta edukitzeko, aldaketok edozein unetan sar daitezke.

*Se ha colgado en la web de Emakunde el Mapa de Recursos que permite geolocalizar todos los servicios disponibles para la atención de las mujeres víctimas de violencia contra las mujeres de una manera rápida y sencilla. Puede buscarse la información de diversas maneras: por ámbito, por municipio, en el propio Mapa por medio de los "globos" y a través del botón desplegable "Ver todos los recursos consultados". Pretende ser un Mapa vivo y como tal, en cualquier momento pueden introducirse las modificaciones necesarias para mantener actualizada la información ofertada.*

Hiru erakunde hauen 2018ko jardueren urteko memoriak egin eta zabaldu dira: Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea; Begira publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordea; eta Berdintasun-eskubideak defendatzeko atala.

*Se han elaborado y difundido las memorias anuales de actividad para el año 2018 de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, Comisión Asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación Begira y Área para la defensa de los derechos de igualdad.*

## 3. KOORDINAZIOA BULTZATZEA EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKO BERDINTASUN-POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENEAN

## *3. IMPULSAR LA COORDINACIÓN EN EL DESARROLLO DE LAS POLÍTICAS PÚBLICAS DE IGUALDAD EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI*

Lege-aurreproiektu bat egiten ari direnez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzeko, iritzi-galdea egin zitzaion Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeari.

*La Comisión Interinstitucional para la Igualdad de Mujeres y Hombres fue consultada con ocasión de la elaboración del Anteproyecto de ley de segunda modificación de la ley para la igualdad de mujeres y hombres.*

Batzorde horri laguntzeko Erakundearteko Talde Teknikoak bilera bat egin du.

*El Grupo Técnico Interinstitucional de apoyo a dicha Comisión se ha reunido en una ocasión.*

Batzorde horretan, lantalde tekniko hauek bultzatu eta koordinatu dira:

a) Lantalde tekniko bat, sektore publikoko hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuetako berdintasun-neurriak jorratzeko: bilera 1.

b) Lantalde tekniko bat, berdintasun-politikak koordinatzeko (berdintasun-politiken gutxieneko kalitate-estandarrak ezartzeko bigarren fasea): bilera 1.

c) Beste lantalde tekniko bat, Egiturazko eta Inbertsioko Europako Funtsen berdintasuna lantzeko: bilera 1.

*En el marco de la comisión, se han impulsado y coordinado los siguientes Grupos Técnicos de Trabajo:*

*a) GTT sobre medidas de igualdad en los convenios, subvenciones y contratos del sector público: 1 reunión.*

*b) GTT para la coordinación de políticas de Igualdad (segunda fase de la implementación de estándares mínimos de calidad de las políticas de igualdad): 1 reunión.*

*c) GTT sobre igualdad en Fondos Europeos Estructurales y de Inversión: 1 reunión.*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin du, eta, bertan, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan 2017an egindako jardueraren jarraipen-txostena aurkeztu zen; sail bakoitzak eta

*La Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres ha celebrado una sesión ordinaria, en la que, entre otras cuestiones, se presentaron el informe de seguimiento de la actividad del Gobierno Vasco en el ámbito de la igualdad de mujeres y hombres relativo a*

Emakundek XI. legealdirako dauzkaten lehentasunen egoera ere aurkeztu zen; gizon-emakumeen berdintasunerako euskal legea bigarrenez aldatzeko lege-aurreproiektuaren II. zirriborroari heldu zitzaion; eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunaren barruan Euskal Autonomia Erkidegoak emakumeen aurkako indarkeriari eman dion erantzunaren berri eman zen.

Batzordeari laguntzeko Sailarteko Talde Teknikoa (STT) 3 aldiz batu da.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen barruan, Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Batzorde Politikoa eratu da (bilera bat izan du). Dagokion Sailarteko Talde Teknikoa ere osatu da: osoko bilkurak bi egin ditu, eta beste 4 aldiz ere batu da talde txikiagotan.

Beste gai bat: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana Estatu Itunarekin, Istanbulgo Hitzarmenarekin eta Euskadi Basque Country Agendarekin lerrokatzea. Horretan jardun dugu Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Sailarteko Talde Teknikoarekin. Ondorioz, dokumentu operatibo batek duen egoerari buruzko txostena egin da.

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeei zuzendutako arreta hobetzeko EAEko II. Erakundearteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2019ko bilkura arruntari dagokion bilera egin du.

Han batuta, Erakundearteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta dinamizatzeko ahalegina egin genuen. Talde horretan -2 bilera egin baititu- ikusi genuen zer ekarpen egin zaizkion emakumeen eta gizonen berdintasunerako euskal legea bigarrenez aldatzeko lege-aurreproiektuaren II. Zirriborroari, eta ekarpenok eztabaidatu eta jaso egin ziren.

Informazio Sistemen Taldeak (IST) urteko lan-bilera egin du. Bilera horretan, batutako datuei buruzko informazioa eman da, eta, datu horiek oinarri hartuta, denon artean gogoeta-saio bat egin dugu. Erakunde guztien datu-bilketaren sistematizazioarekin jarraitzeaz gain, 2019an adierazle berriak sartu dira aplikazioan, gai hauei buruzkoak: indarkeriaren arloko aurrekontua eta gastua; biktima diren eta bizirik atera diren emakumeak artatzen dituzten profesionalen kopurua; langileen prestakuntza; eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prebentzio- eta sentsibilizazio-kanpainak. Gure baliabideen kalitateari buruzko datuetara hurbiltzeko lehen ahalegin horri esker, halaber, GREVIOren esparruan sortutako gai batzuei erantzuna eman ahal izan zaie, eta EAEko Berdintasunerako Legea aldatzeak ekarriko duen gastua baloratzeko modua egon da. Horren ondorioz, lehen aipatutako bi analisi-txosten egin dira, bata estatistika-datuei buruzkoa eta bestea laguntza-baliabideei buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko zein beste erkidego batzuetako profesionalei, erakundeei eta instituzioei emakumeen aurkako indarkeriaren arloko aholkularitza eman diegu.

Estatuko Ituna garatzeko premiazko neurrien 9/2018

*2017 y el estado de las prioridades para la XI. legislatura por parte de cada departamento y de Emakunde, se abordó el II. borrador de Anteproyecto de ley de segunda modificación de la ley vasca para la igualdad de mujeres y hombres, y se informó sobre la respuesta de la CAE frente a la violencia contra las mujeres, alineada con el Pacto de Estado contra la Violencia de Género.*

*El Grupo Técnico Interdepartamental (GTI) de apoyo a la Comisión se ha reunido en 3 ocasiones.*

*En el marco de la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres se ha constituido una Comisión Política de eliminación de la violencia contra las mujeres, que se ha reunido en una ocasión, así como su correspondiente Grupo Técnico Interdepartamental que se ha reunido en plenario en dos ocasiones y en grupos más reducidos en otras 4 sesiones.*

*Con el Grupo Técnico Interdepartamental de eliminación de la violencia contra las mujeres se ha trabajado en el alineamiento del VII Plan de Igualdad de mujeres y hombres, con el Pacto de Estado, con el Convenio de Estambul y con la Agenda Euskadi Basque Country. Como resultado se ha elaborado un informe sobre el estado de situación que contiene un documento operativo.*

*La Comisión de Seguimiento del II Acuerdo Interinstitucional para la mejora en la atención a mujeres víctimas de maltrato en el ámbito doméstico y de violencia sexual de la CAE, ha celebrado la reunión correspondiente a la sesión ordinaria de 2019.*

*En el marco de la misma, se ha impulsado y dinamizado el trabajo del GTI, Grupo Técnico Interinstitucional, que ha celebrado 2 reuniones en las que se presentaron, debatieron y recogieron nuevas aportaciones al II borrador de Anteproyecto de Ley de segunda modificación de la ley vasca para la igualdad de mujeres y hombres.*

*El GSI, Grupo de Sistemas de Información, ha realizado la reunión de trabajo anual, en la que se ha informado sobre los datos recogidos, que han servido de base para la reflexión conjunta. Aparte de continuar con la sistematización en la recogida de datos de todas las instituciones, este año 2019 se han introducido nuevos indicadores en la aplicación, referidos al presupuesto y gasto en materia de violencia, número de profesionales que atienden a mujeres víctimas y supervivientes, formación del personal y campañas de prevención y sensibilización sobre violencia contra las mujeres. Este primer intento de acercamiento a los datos sobre la calidad de los propios recursos, ha permitido asimismo responder a cuestiones surgidas en el marco del GREVIO, así como valorar el gasto que supondrá la modificación de la Ley de Igualdad vasca. Como resultado, se han realizado dos informes de análisis mencionados anteriormente, uno sobre los datos estadísticos y otro sobre los recursos de atención.*

*Se ha asesorado a profesionales, entidades e instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como de otras comunidades, en materia de violencia contra las mujeres.*

*El Real Decreto-ley 9/2018 de medidas urgentes para el*

Errege Lege Dekretuari esker, genero-indarkeria egiaztatzeko mekanismoak zabalagoak dira orain, gizarte-zerbitzuetako, zerbitzu espezializatuetako eta harrera-zerbitzuetako txostenak baliozkoak baitira orain, eremu hauetan: eskubide soziolaboralen arloan, Gizarte Segurantzaren esparruan eta gizarteratzeko eta laneratzeko programetan. Indarkeria-egoera egiaztatzeko prozeduraren inguruan badira hausnarketa eta zailtasun batzuk identifikaturik; orain, mahi gainean jarri behar, eta, horretarako, hausnarketa-prozesu bat garatu da inplikatutako hainbat erakunderen artean (udaletako gizarte-zerbitzuak, Eudel, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza, Lanbide eta Emakunde), eta, denen buru, Emakunde, Eudel eta Enplegu eta Gizarte politiketako Saila.

*desarrollo del Pacto de Estado ha ampliado los mecanismos de acreditación de las situaciones de Violencia de género, en el marco de los derechos sociolaborales, de la Seguridad Social y los programas de inserción socio-laboral, dando validez a informes de servicios sociales, servicios especializados y servicios de acogida. Con el objetivo de poner sobre la mesa las reflexiones y dificultades que se identifican en torno al procedimiento de acreditación de la situación de violencia, se ha desarrollado un Proceso de Reflexión entre varias instituciones implicadas (Servicios Sociales Municipales, EUDEL, Dirección de Servicios Sociales del Gobierno Vasco, Lanbide y Emakunde), liderado por Emakunde, EUDEL y el Departamento de Empleo y Políticas Sociales.*

Eusko Jaurlaritzaren Publizitateari buruzko Sailarteko Batzordeari aholkuak eman dizkiogu, iragarki instituzionaletan genero-ikuspegia txertatzeari buruz.

*Se ha asesorado a la Comisión Interdepartamental de Publicidad del Gobierno Vasco en relación a la inclusión de perspectiva de género en los anuncios institucionales.*

BEGIRA publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko aholku-batzordeak ohiko bilera bat egin ditu. Han, proposamenak kontrastatu, ekarpenak jaso eta akordio batzuk hartu ziren, 2018an egin zen bost urtean behingo ebaluazioaren ondorioetan oinarrituta.

*La Comisión asesora para un uso no sexista de la publicidad y la comunicación/Begira ha celebrado una reunión ordinaria el 30 de enero. En el marco de la misma, se contrastaron propuestas, se recogieron aportaciones y se tomaron acuerdos en base a las conclusiones de la evaluación quinquenal que se llevó a cabo en 2018.*

Online plataforma kudeatu eta dinamizatu dugu BEGIRAko langileen elkarlaneko lanerako.

*Se ha gestionado y dinamizado la plataforma on-line para el trabajo colaborativo del personal de Begira.*

Aholku Batzordeak (hura da Emakunderen eta emakumeen elkarteen artean ezarritako komunikazio-bidea) ohiko bilera bat egin du, bai eta lurraldearteko bilera bat ere.

*La Comisión Consultiva, cauce de comunicación establecido entre Emakunde y las asociaciones de mujeres, ha llevado a cabo una reunión ordinaria, así como, tres reuniones interterritoriales.*

2005ean, Emakundek eta Eudelek lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten, Berdinsarea martxan jartzeko eta finantzatzeko (Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea). Hitzarmen hori berritu egin da.

*Se ha renovado el Convenio de Colaboración que fue suscrito en 2005 por Emakunde y Eudel para la puesta en marcha y financiación de Berdinsarea / Red de Municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres.*

EUDELekin elkarlanean aritu gara sarea koordinatzeko, eta haren baitan eratu diren batzorde eta lantaldeetan parte hartu dugu. Besteak beste, aipa ditzagun, merezi baitu, talde hauek: generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioak tokian toki aplikatzea sustatzeko lantaldea, barne-komunikazioa hobetzeko lantaldea eta indarkeriari buruzko batzordea, udalerrietan erreparazio-printzipioa aplikatzeko gida bat egiteko lanean ari dena.

*Se ha colaborado con el Eudel en la coordinación de la red y se ha participado en las distintas comisiones y grupos de trabajo constituidos en su seno. Entre los que cabe destacar, el grupo de trabajo para promover la aplicación de evaluaciones previas de impacto en función del género a nivel local, el grupo de trabajo desarrollado para mejorar la comunicación interna y la comisión sobre violencia, que está trabajando en la elaboración de una guía para la aplicación del principio de reparación en los municipios.*

Eudelekin lankidetza-hitzarmena berritu dugu populazio txikieneko udalerrientzako dinamizazio- eta aholkularitza-zerbitzua lagundu eta finantzatzeko, eta jardueren gauzatze-mailaren jarraipena egin dugu.

*Se ha renovado el Convenio de colaboración con Eudel para apoyar y financiar el servicio de dinamización y asesoramiento a municipios de menor población y se ha realizado seguimiento de la ejecución de las actuaciones.*

**-Nazioarteko lankidetzaren esparruan hainbat jarduera egin ditugu:**

***-Se han llevado a cabo diversas actividades en el marco de la colaboración internacional:***

2019-2020 aldirako Emakunderen Nazioartekotze Estrategia aurkeztu zaie Euskadiren atzerriko ordezkariei eta ordezkaritzetako harreman instituzionalen arduradunei, estrategia hori ezar dadin (Kanpo Harremanetarako Basque Country Estrategiaren barruan dago). Gainera, alde biko lan-agendak ezarri dira Argentina-Mercosur-en daukagun ordezkaritzarekin, Txile, Peru eta Kolonbian daukagun ordezkaritzarekin (Emakundek bai baititu bi lankidetza-memorandum sinaturik, bata Txileko

*Se ha presentado la Estrategia de internacionalización de Emakunde 2019-2020, en el marco de la Estrategia Basque Country a Acción Exterior, a delegados y delegadas de Euskadi en el exterior y al personal responsable de las relaciones institucionales de las delegaciones para implementar dicha estrategia. Además, se han establecido agendas bilaterales de trabajo con la Delegación en Argentina-Mercosur; con la Delegación en Chile, Perú y Colombia (para desarrollar los dos*

Lehendakaritzako Fundazioen Sare barruko Familien Fundazioarekin, eta bestea Txileko Emakumearen eta Genero Ekitatearen Ministerioarekin, eta garatu egin behar dira), eta Mexikon daukagun Ordezkaritzarekin (lankidetza-memorandum bat garatzeko Mexikoko Gobernuak Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko daukan Batzorde Nazionalarekin).

*memorandos de colaboración suscritos por Emakunde, respectivamente, con la Fundación de las Familias, de la Red de Fundaciones de la Presidencia de Chile, y con el Ministerio de la Mujer y la Equidad de Género de Chile); y con la Delegación en México (para desarrollar el Memorando de colaboración con la Comisión Nacional para Prevenir y Erradicar la Violencia contra las Mujeres del Gobierno de México).*

Munduko Nekazaritza Foruarekin lankidetzan aritu gara, Familia Nekazaritzako Munduko VI. Biltzarra egiteko lanetan, Eusko Jaurlaritzak eta erakunde horrek egindako esparru-akordioaren barruan.

*Se ha colaborado con el Foro Rural Mundial en la realización de la VI Conferencia Global sobre Agricultura Familiar, en el marco del Acuerdo Marco suscrito entre el Gobierno Vasco y dicha organización.*

Euskadik Estatu Batuetan duen Ordezkaritzarekin lankidetzan, Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordearen (CSW63) 63. edizioan parte hartu da. Testuinguru horretan, Emakundek hizlari gisa parte hartu du ekitaldi ofizialetan eta ez-ofizialetan, eta aldebiko bilerak ere egin ditu hainbat herrialde eta nazioarteko erakunderekin.

*En colaboración con la Delegación de Euskadi en Estados Unidos, se ha participado en la 63 edición de la Comisión de la Condición Jurídica y Social de la Mujer de Naciones Unidas (CSW63). En dicho contexto, Emakunde ha participado como ponente en eventos oficiales y no oficiales y ha llevado a cabo reuniones bilaterales con distintos países y organizaciones internacionales.*

